

## Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as... Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en [www.baketik.org](http://www.baketik.org))

# Brave

## Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Brave.  
AÑO: 2012.  
DURACIÓN: 90 min.  
PAÍS: EE.UU.

DIRECCIÓN: Mark Andrews, Brenda Chapman, Steve Purcell.  
REPARTO: Animación.  
PRODUCCIÓN: Pixar Animation Studios / Walt Disney Pictures.

## Sinopsis

Merida, la indómita hija del Rey Fergus y de la Reina Elinor, es una hábil arquera que decide romper con una antigua costumbre, que es sagrada para los señores de la tierra: el gigantesco Lord MacGuffin, el malhumorado Lord Macintosh y el cascarrabias Lord Dingwall. Las acciones de Merida desencadenan el caos y la furia en el reino. Además, pide ayuda a una sabia anciana que le concede un deseo muy desafortunado. La muchacha tendrá que afrontar grandes peligros antes de aprender qué es la auténtica valentía.

## Temática

### Respeto, amor, comunicación

**Respeto.** La película muestra las consecuencias que tienen la falta de respeto a las decisiones o puntos de vistas de las otras personas, incluso de la familia.

**Amor.** Más allá de las muy diferentes visiones que madre e hija tienen de la vida ambas son finalmente conscientes de lo que de verdad las une: el amor incondicional que se profesan.

**Comunicación.** La película muestra la importancia de la comunicación en este caso entre una hija y su madre y el papel que la escucha tanto interior como del otro tiene para resolver los desencuentros.

## Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película...

**...hacia adentro.** Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

**...hacia fuera.** Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

**...no solo con la cabeza, también con el corazón.** Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

**...y después de algún tiempo repensar.** Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

## Algunas preguntas...

### ...antes de la película

- Sobre el respeto: ¿Qué es para mí el respeto? ¿Qué cuestiones de mi vida considero que debo decidir yo y nadie más?
- Sobre el amor: ¿Qué entiende por amor? ¿Qué papel juega en tu vida y tus decisiones?
- Sobre la comunicación: ¿Qué importancia tiene la comunicación en nuestro día a día? ¿y en el caso de mi vida familiar?


### ...después de la película

- ¿Cómo es el proceso de Mérida a lo largo de la película?, ¿Cómo se siente al principio? ¿y al final?
- ¿Merida ha renunciado a su capacidad de decisión?
- ¿Qué es lo que madre e hija han descubierto al final de su historia?

Con la colaboración de Iker Uson.

zeurekin eta besteekin bizitzeko zinema

# Brave



baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA  
Baketik eta Elakidetzarako Sekretaria Generala para la Paz y la Convivencia  
Baketik eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

baketik

943-251005

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)

## Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzarekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago [www.baketik.org](http://www.baketik.org) webgunean)

# Brave

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Brave.

URTEA: 2012.

IRAUPENA: 90 min.

HERRIALDEA: EE.UU.

ZUZENDARIA: Mark Andrews, Brenda Chapman, Steve Purcell.

AKTORE-ZERRENDA: Animación.

EKOIZPEN-ETXEA: Pixar Animation Studios / Walt Disney Pictures.

## Sinopsia

Merida, Fergus Erregearen eta Elinor Erreginaren alaba basatia, ohitura zahar batekin apurtzea erabakitzen duen arklari abila da; bertako jauntxo diren Lord MacGuffin erraldoia, Lord Macintosh petrala eta Lord Dingwall erretxinarentzako sakratua den ohitura da hori, hain zuzen ere. Meridaren ekintzek kaosa eta sumina sortzen dute erreinuan. Gainera, andre zahar jakintsu bati laguntza eskatzen dio eta zoritxarreko gurari bat eskaintzen dio honek. Neskatoak arrisku handiei aurre egin beharko die egiazko adorea zer den ikasi arte.

## Gaiak

### Errespetua, maitasuna, komunikazioa

**Errespetua.** Pelikulak beste pertsonen erabaki edo ikuspuntuekiko errespetu faltak dituen ondorioak erakusten ditu, baita familiarenak direnean ere.

**Maitasuna.** Ama-alabak bizitzaren inguruan dituzten ikuspegi hain ezberdinez haratago, biak jabetzen dira azkenean zein den elkarren lotura: elkarrekiko duten baldintzarik gabeko maitasuna.

**Komunikazioa.** Pelikulak komunikazioaren garrantzia erakusten du, kasu honetan ama eta alabaren artean, bai eta barne-entzuteak eta elkar-entzuteak gatazkak lantzeko orduan duten paperarena ere.

### Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

**...barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

**...kanpora begira.** Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

**...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere.** Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu.** Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

## Zenbait galdera...

### ...pelikula ikusi aurretik

- Errespetuaren inguruan: zer da niretzat errespetua? Nire bizitzako ze alderdiko erabakiak dira soilik nire esku daudenak?
- Maitasunaren inguruan: Zer ulertzen duzu maitasunaz ari garenean? Ze toki dauka zure bizitzan eta erabakietan?
- Komunikazioaren inguruan: Ze garrantzia dauka komunikazioak gure egunerokotasunan? Eta bizitza familiarraren kasuan?

### ...pelikula ikusi ondoren

- Nolakoa da Meridaren prozesua pelikulan zehar? Nola sentitzen da hasieran? Eta bukaeran?
- Meridak bere erabakitzeko gaitasunari uko egin al dio?
- Zer deskubritu dute amak eta alabak euren istoriaren bukaeran?

Iker Usonen laguntzarekin.

